



JAKINARAZTEN DA Alkateak, 2024ko irailaren 2an honako Dekretu hau eman duela:

“Bergarako Udalak LANBIDE bitartez Euskal Autonomia Erkidegoko EGF Plus 2021-2027 programaren esparruan Toki-erakundeek gazteak kontratatzeko 2024ko ekitaldiko dirulaguntzen bidez Arkitekto teknikoa kontratatzeko egindako deialdiaren oinarriak onartu zituen 2024ko maiatzaren 17an emandako alkatearen dekretu bidez.

2024ko ekainaren 26an emandako alkate dekretu bidez egindako deialdia hutsik aitortzen da eta deialdi berri bat egiteko baimena eskatzea erabakitzen da.

Deialdi berria eginda (Esp.zk.a.: 2024LAAU0014) eta eskabideak aurkezteko epea amaituta, 2024ko abuztuaren 14an onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartu ziren. Erreklamaziorik egon ez dela ikusita, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA: Onartutako eta baztertutako izangaien behin-betiko zerrenda hau onartzea:

Onartuak:

C.V	Izena eta abizenak
162024008945	M.N.G.

Ohartarazten da titulazioa edota gainontzeko dokumentazioa egiaztatzea eskatu ahal izango zaiela prozesuko edozein momentutan (eta betiere indarrean egon behar direla eskaerak aurkezteko epearekiko), eta aurkeztuko ez balute prozesutik baztertuak izango dira.

Baztertuak: Bat ere ez

BIGARRENA: Lehenengo proba, lanpostuaren eginkizunak betetzeko gaitasuna neurtzekoa, 2024ko irailaren 3an egitea, goizeko 08:00etan, Bergarako Udal Liburutegian.

HIRUGARRENA: 2024ko abuztuaren 14an izendatutako epaimahaiaren osaketa zuzentzea, honako hau izanik:

- Mahaiburua: Leticia Alvarez, Bergarako udaleko arkitektoa.
- Mahaikideak:
 - Garazi Baños, Bergarako udaleko Obra eta Zerbitzuetako buruaren ordezkoa.
 - Xabier Berridi, Bergarako udaleko hirigintzako arkitekto teknikoa.
 - Nagore Narbaiza Zarandona, Komiteak izendatutako kidea.
 - Estepan Plazaola, Euskara Zerbitzuko burua, euskarako probarako.
- Idazkaria: María Concepción Ugalde Izeta, Bergarako udaleko Idazkaria.

Premia balego izendatuko dira ordezkorik ez duten epaimahaikide titularren ordezekoak.



Urriaren 1eko 40/2015 Legearen 24. artikuluan ezarritakoari jarraituz, epaimahaikideen errekusazioa aurkeztu ahal izango da, zein arrazoitan oinarritzen den adierazita.

LAUGARRENA: Erabakia udaletxeko iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratzea.”

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA



EKS | CSV: SINAd16868bb-b1e9-45e3-be01-7cde0fd732a2

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07410>